


MANIFIESTO CONTRA LA MUERTE DEL ESPÍRITU
ESPIRITUAREN HERIOTZAREN KONTRAKO MANIFESTU

Álvaro Mutis y Javier Ruiz Portella

NOSOTROS SOMOS UNA PARTE DE LA TIERRA
GU LURRARENAK GARA

Gran Jefe Seattle · Seattle Buruzagi Handia



**MANIFIESTO CONTRA LA MUERTE DEL ESPÍRITU
ESPIRITUAREN HERIOTZAREN KONTRAKO MANIFESTU**

Álvaro Mutis y Javier Ruiz Portella

**NOSOTROS SOMOS UNA PARTE DE LA TIERRA
GU LURRARENAK GARA**

Gran Jefe Seattle · Seattle Buruzagi Handia



**FUNDACION
ESTEYCO**

A mi viejo pueblo
A mi joven patria
Todo mi trabajo
De todo corazón le ofrezco

NĒRE HERRI ZAHARRAI
NĒRE ABERAI GARTEARI
NĒRE LAN OSOR
BIHOTZ BIHOTZEZ OPA DICT

LAULAN

© 2002 FUNDACIÓN ESTEYCO

Edita. Argitaratzailea:
FUNDACIÓN ESTEYCO. Menéndez Pidal, 17. 28036 Madrid.

Traducción al euskera. Euskararako itzulpena:
BELAXE, C.B.

Diseño Gráfico. Diseinu Grafikoa:
PILAR CARRIZOSA

Fotocomposición, Fotomecánica e Impresión. Fotokonposizioa, Fotomekanika eta Inprimaketa:
EUROCOLOR, S.A. (Madrid).

D. L.: M-51534-2002

Fotografía de portada: Azaleko argazkia:
© CARRIZOSA, Gure Aitaren Etxea, Gernika. Eduardo Chillida.

Eduardo Chillida se nos marchó para siempre. En el cielo, las estrellas brillan más y a la luna, desde entonces, le falta un pedazo. El editor J.J. de Olañeta, desde Palma de Mallorca, publica una cuidada edición en catalán de la carta que escribió, en 1855, el Gran Jefe Seattle al Presidente de los Estados Unidos. En el *Cultural de El Mundo*, se difunde el *Manifiesto contra la muerte del espíritu*, escrito por Javier Ruiz Portella y suscrito por Álvaro Mutis y muchos más. Gracias a ellos y a Gaudí ha brotado este sencillo libro en la Navidad del año 2002.

J.R.-W

Joan zaigu Eduardo Chillida, betiko joan ere. Izarrek distira handiagoa dute zeruan eta ilargiari, harrezkero, zati bat falta zaio. J.J. de Olañeta Editoreak, Mallorkako Palmatik, Estatu Batuetako Lehendakariari Seattle Buruzagi Handiak 1855ean idatzi zion gutunaren edizio zaindua argitaratu du katalanez. *El Mundoko Culturalean* Javier Ruiz Portellaren *Espirituaren heriotzaren kontrako manifestua* argitaratu da, Álvaro Mutisek eta beste askok sinatuta. Horiei eta Gaudíri esker, liburu xume honek argia ikusi du 2002ko Gabonetan.

J.R.-W

MANIFIESTO CONTRA LA MUERTE DEL ESPÍRITU
ESPIRITUAREN HERIOTZAREN KONTRAKO MANIFESTU

Álvaro MUTIS y Javier RUIZ PORTELLA

MANIFIESTO CONTRA LA MUERTE DEL ESPÍRITU

Álvaro Mutis y Javier Ruiz Portella

Quienes estampamos nuestra firma al pie de este Manifiesto no estamos movidos por ninguno de los afanes que caracterizan habitualmente al signatario de proclamas, protestas y reivindicaciones. El Manifiesto no pretende denunciar políticas gubernamentales, ni repudiar actuaciones económicas, ni protestar contra específicas actividades sociales. Contra lo que se alza es contra algo mucho más general, hondo... y por lo tanto difuso: contra la profunda pérdida de sentido que conmueve a la sociedad contemporánea.

Aún sigue existiendo, es cierto, algo parecido al sentido; algo que, por sorprendente que sea, aún justifica y llena la vida de los hombres de hoy. Por ello, el presente Manifiesto se alza, hablando con mayor propiedad, contra la reducción de dicho sentido a la función de preservar y mejorar (en un grado, es cierto, inigualado por ninguna otra sociedad) la vida material de los hombres.

Trabajar, producir y consumir: tal es todo el horizonte que da sentido a la existencia de los hombres y mujeres de hoy. Basta, para constatarlo, leer las páginas de los periódicos, escuchar los programas de radio, regodearse ante las imágenes de la televisión: un único horizonte existencial (si se le puede denominar así) preside a cuanto se expresa en los medios de comunicación de masas. Contando con el enfervorizado aplauso de éstas, dicho horizonte proclama que de una sola cosa se trata en la vida: de incrementar al máximo la producción de objetos, productos y esparcimientos puestos al servicio de nuestro confort material.

Producir y consumir: tal es nuestro santo y seña. Y divertirse: entretenerse en los pasatiempos (se denominan con acertado término: "actividades de ocio") que la industria cultural y los medios de comunicación lanzan al mercado con objeto de llenar lo que, sólo indebidamente, puede calificarse de "vida espiritual"; con objeto de llenar, más propiamente hablando, lo que constituye ese vacío, esa falta de inquietud y de acción que la palabra ocio expresa con todo rigor.

A ello se reduce la vida y el sentido del hombre de hoy, la de ese "hombre fisiológico" que parece encontrar su mayor plenitud en la satisfacción de las necesidades derivadas de su mantenimiento y sustento. Resulta obligado reconocer, por supuesto, que en semejante empeño —muy especialmente en la mejora de las condiciones sanitarias y en el incremento de una longevidad que casi se ha duplicado en el curso de un siglo—, los éxitos alcanzados son absolutamente espectaculares. También lo son los grandes avances que la ciencia ha efectuado en la comprensión de las leyes que rigen los fenómenos físicos que conforman el universo en general y la tierra en particular. Lejos de repudiar tales avances, los signatarios del presente Manifiesto no podemos sino saludarlos con hondo y sincero júbilo.

Manifestu hau sinatu dugunongan ez dute inolako eraginik horrelako adierazpen, protesta eta aldarrikapenak sinatu ohi dituztenengan nagusi izaten diren nahiek. Manifestuaren helburua ez da gobernuen politikak salatzea, jokabide ekonomikoak gaitzestea edo gizarte-jarduera jakin batzuen kontrako salaketak egitea. Askoz ere orokorragoa, sakonagoa... eta, beraz, lausoagoa den zerbaitez mintzo gara gu. Egungo gizartea bere benetako zentzua erabat ari da galtzen, eta horren kontra gaude.

Oraindik badugu, ordea, zentzu horren antzekoa den zerbaitez; hortxe dago, bai -bizirik dirau harritzekoa bada ere- gizakion bizitza arrazoiz jantzen eta betetzen duen hori. Baina hitz egin dezagun zehaztasun handiagoz. Aipatu dugun zentzua gizakion bizitza materiala mantentzera eta hobetzera (egia esan, beste inongo gizarteek ez dute gure maila lortu) murrizten ari gara, eta gure Manifestua murrizketa horren kontrako adierazpena duzue.

Lan egitea, produzitzea eta kontsumitzea. Horra hor egungo gizon-emakumeon bizitzaren zentzu bakarra. Eta egiaztatzeko, aski dugu egunkariak irakurtzea, irratiko programak entzutea edo telebistako irudiak ikustea: aukera existentzial bakarra (hala deitzerik badago, behinik behin) da jaun eta jabe masa-komunikabideek igortzen dizkiguten mezu guztietan. Masa-komunikabideek grina biziz diote bizitzan benetan balio duen bakarra gure erosotasun materialaren zerbitzura jarritako objektu, produktu eta aisialdirako kontuetan ahalik eta produktiorik handiena lortzea dela. Hobe esanda hori aldarrikatzen duen aukeraren alde egiten dute, itsu-itsuan.

Produzitzea eta kontsumitzea. Horra hor gure ezaugarri bereizgarriak. Eta ondo pasatzea: komunikabideei eta kulturari lotutako industrien bidez merkatura heltzen diren denbora-pasekin (oso izen egokia dute: "aisialdirako jarduerak") entretentzea. Ustez "bizitza espiritual" (oker erabilitako kontzeptua) lantzeko balio dute, baina bene-benetan, aisialdi hitzak berak hain ongi adierazten duen hutsune hori, zaletasun- eta gogo-falta hori betetzeko moduak baino ez ditugu.

Horretara mugatzen dira egungo gizon-emakumeen, egungo "gizaki fisiologikoen" bizitza eta zentzua, benetan baitirudi mantenu eta bizigaien ondoriozko premiak asetzea dugula poztasun-iturriarik handiena. Esanak esan, bistakoa da ekinaren ekinez lorpen erabat ikusgarriak eskuratu dituela gizakiak, batik bat osasun-baldintzen hobekuntzari eta bizi-itxaropenaren luzapenari (mende bakar batean bikoiztu egin da ia) dagokienez. Zientziak ere sekulako aurrerapausoak eman ditu unibertsoko eta Lurreko fenomenoen fisikoen legeen ulermenean. Manifestu hau sinatu dugunok ez ditugu aurrerapenok inondik inora errefusatzen; aitzitik, bihotz-bihotzez eta pozarren hartzen ditugu.

Es precisamente este júbilo el que nos lleva a expresar su asombro y su angustia ante la paradoja de que, en el momento en que tales conquistas han permitido aliviar considerablemente el sufrimiento de la enfermedad, mitigar la dureza del trabajo, expandir la posibilidad del conocimiento (en un grado jamás experimentado y en unas condiciones de igualdad jamás conocidas): en un momento caracterizado por tan saludables provechos, resulta que es entonces cuando, reducidas todas las perspectivas al mero incremento del bienestar, corre el riesgo de quedar aniquilada la vida del espíritu.

Lo que pelagra no son, salvo hecatombe ecológica, los beneficios materiales así alcanzados; lo que se ve amenazada es la vida del espíritu. Lo prueba, entre mil otras cosas, el mero hecho de que incluso se ha vuelto problemático usar el término "espíritu". Es tal el materialismo que impregna los más íntimos resortes de nuestro pensamiento y de nuestro corazón, que basta utilizar positivamente el término "espíritu", basta atacar en su nombre el materialismo reinante, para que la palabra "espíritu" se vea automáticamente cargada de despectivas connotaciones religiosas, si ya no esotéricas.

Se impone por ello precisar que no es la inquietud religiosa la que mueve a los signatarios del presente Manifiesto, independientemente de lo que éstos puedan considerar acerca de la relación entre "lo espiritual" y "lo divino".

Lo que nos mueve no es la inquietud ante la muerte de Dios, sino ante la del espíritu: ante la desaparición de ese aliento por el que los hombres se afirman como hombres y no sólo como entidades orgánicas. La inquietud que aquí se expresa es la derivada de ver desvanecerse ese afán gracias al cual los hombres son y no sólo están en el mundo; esa ansia por la que expresan toda su dicha y su angustia, todo su júbilo y su desasosiego, toda su afirmación y su interrogación ante el portento del que ninguna razón podrá nunca dar cuenta: el portento de ser, el milagro de que hombres y cosas sean, existan: estén dotados de sentido y significación.

¿Para qué vivimos y morimos nosotros: los hombres que creemos haber dominado el mundo..., el mundo material, se entiende? ¿Cuál es nuestro sentido, nuestro proyecto, nuestros símbolos..., estos valores sin los que ningún hombre ni ninguna colectividad existirían? ¿Cuál es nuestro destino? Si tal es la pregunta que cimienta y da sentido a cualquier civilización, lo

Hain zuzen, aurrerapenok pozarren hartzen ditugulako gaude hain harrituta eta larrituta sortu den paradoxa dela eta. Izan ere, aipatu ditugun aurrerapenei esker, gaixotasunak arindu, lan-baldintzak samurtu eta ezagutza-aukerak ugaritu egin dira (inoiz ez bezala eta sekula ezagutu ez den aukera-berdintasunaz ugaritu ere). Eta horrenbeste onura eder lortu ditugunean, gure nahi bakarra ongizatea hobetzea da, espirituaren bizitza galzorian dagoela.

Arriskuan dagoena ez da alderdi materiala, sarraski ekologikoren bat geratzen ez bada behintzat, espirituaren bizitza baizik. Arrisku horren mila adibide ditugu, baina bakarra aipatuko dugu: gaur egun "espiritu" hitza erabiltzea arazo-iturri dugu. Materialismoz blai eginda daude gure burua eta bihotza, eta "espiritu" hitza zentzu positiboan erabiltzen badugu, hitz horren izenean nagusi den materialismoari erasotzen hasten bagara, konnotazio erlijioso txarrak, eta batzuetan esoterikoak, hartzen ditu berehala.

Beharrezkoa da, hortaz, zehaztea, manifestu hau sinatu dugunok ez dugula kezka erlijiosoa gidaritzat hartu, "espiritualtasunaren" eta "jainkotasunaren" arteko harremanaz dugun iritzia gorabehera.

Ez gaitu Jaungoikoaren heriotzak kezkatzen, espirituarenak baizik: gizakia, izaki organikotik harantzago, gizaki egiten duen zera hori desagertu egin da. Kezkatuta gaude, bai; izan ere, lausotzen ikusi dugu gizakia gizaki izatera –eta ez munduan egote hutsera– eramaten duen irrika hori; zoriona eta larritasuna, poztasuna eta artegatasuna, segurtasuna eta zalantza adieraztera bultzatzen duen gogo bizi hori. Azken batean, arrazoiarekin erantzun ezin den miraria da: gizakiak eta gauzak izan badira, eta zentzuz eta esanguraz beteta daude.

Zertarako bizi eta hiltzen gara mundua, materiaren mundua jakina, menderatu dugula uste dugun gizakiok? Zein dira gure zentzua, gure proiektua, gure sinboloak...? –balio horiek gabe ez legoke ez gizakirik ez gizaki-talderik–. Zein da gure patua? Horixe da zibilizazio orori zentzua ematen dion galdera. Baina

propio de la nuestra es ignorar y desdeñar tal tipo de pregunta: una pregunta que ni siquiera es formulada, o que, si lo fuera, tendría que ser contestada diciendo: "Nuestro destino es estar privados de destino, es carecer de todo destino que no sea nuestro inmediato sobrevivir".

Carecer de destino, estar privados de un principio regulador, de una verdad que garantice y guíe nuestros pasos: semejante ausencia –semejante nada– es sin duda lo que trata de llenar la vorágine de productos y distracciones con que nos atiborramos y cegamos. De ahí proceden nuestros males. Pero de ahí procede también –o mejor dicho: de ahí podría proceder, si lo asumiéramos de muy distinta manera– toda nuestra fuerza y grandeza: la de los hombres libres; la grandeza de los hombres no sometidos a ningún Principio absoluto, a ninguna Verdad predeterminada; el honor y la grandeza de los hombres que buscan, se interrogan y anhelan: sin rumbo ni destino fijo. Libres, es decir, desamparados. Sin techo ni protección. Abiertos a la muerte.

Esbozar la anterior perspectiva no significa, ni que decir tiene, resolver nada. Contrariamente a todos los Manifiestos al uso, no pretende éste apuntar medidas, plantear acciones, proponer soluciones. Ya ha pasado afortunadamente el tiempo en que un grupo de intelectuales podían imaginarse que, plasmando sus ansias y proyectos en una hoja tan blanca como el mundo al que pretendían modelar, iba éste a seguir el rumbo fijado. Tal es el sueño –el señuelo– del pensamiento revolucionario: este pensamiento que, habiendo conseguido poner los fórceps del poder al servicio de sus ideas, sí logró –pero con las consecuencias que sabemos– transformar el mundo durante unas breves y horrendas décadas.

El mundo no es en absoluto la hoja en blanco que se imaginaban los revolucionarios. El mundo es un fascinante y a veces aterrador libro trenzado de pasado, enigmas y espesor. No pretenden pues los firmantes del presente Manifiesto plasmar ningún nuevo programa de redención en ninguna nueva hoja en blanco. Pretenden ante todo, y ya sería mucho, conglomerar voces unidas por un parecido malestar.

Ya sería mucho, en efecto: pues lo más curioso, por no decir lo más inquietante, es que semejante malestar no haya encontrado hasta la fecha ningún auténtico cauce de expresión. Aún más angustioso que la

gurean, halako galderak baztertu eta mesprezatu egiten ditugu; hobeto esanda, egin ere ez ditugu egiten. Galdera hori planteatuko bagenu, hauxe izango litzateke erantzuna: "Paturik ez izatea da gure patua; biziraupen hutsean oinarritzea".

Paturik eza, gure urratsak gidatu eta bermatuko dituen printzipiorik eza –ezereza bera– da produktu eta entretenigarriekin bete nahi duguna, eta oka egin arte, zeharo itsutu arte, kontsumitzen ditugu. Hor non dagoen gure gaitzen oinarria. Dena den, egoera horri beste modu batean aurre eginda, indarra eta handitasuna ere lortuko genuke. Gizaki askeak izango ginateke: inolako Printzipio absolututatik urruti, aurrez finkatutako Egia orotatik urrun. Bilatu, galdetu eta irrikatzen duten gizaki ohoretsu eta handiak izango ginateke: norabide eta helburu jakinik gabe. Askeak, hau da, babesgabeak. Teilatuz eta babesik gabe. Heriotzari aurrez aurre begira.

Gizakiari buruz eman dugun ikuspegi horrek, baina, ez du ezer konpondu nahi, ez horixe. Erabili ohi diren manifestuek ez bezala, honako honek ez du neurriak, ekintzak edo irtenbideak emateko helbururik. Zorionez, dagoeneko joan da garai hura. Orduan, intelektual-taldeek uste zuten, mundua bera bezain orri zurian beren irrika eta proiektuak plazaratuta, munduak eurek finkatutako bidea hartuko zuela. Horixe da iraultzaileen funtsezko pentsamendua –amua–: boterea beren ideien zerbitzura jartzea lortu ondoren, hamarkada ikaragarri gutxi batzuetan mundua eraldatzea lortu zuten, baina guztiok dakizkigun ondorioekin.

Baina mundua ez da iraultzaileek uste zuten orri zuria, ezta hurrik ere. Iraganaz, enigma ugariz eta sakontasunez taxututako liburu liluragarria da, eta batzuetan, ikaragarria ere bada. Hortaz, honako hau sinatzen dugunok ez dugu inolako orri zuritan erredentzio-programa berririk eman nahi. Batik bat, antzerako kezka duten ahotsak batu gura ditugu, eta ez da gutxi.

Ez da gutxi, ez horixe. Izan ere, bitxieta da –eta kezkarriena ere bai– halako egonezinak orain artean inolako biderik ez bilatu izana. Espirituaren heriotzak berak baino larritasun

propia muerte del espíritu, es el hecho de que, salvo algunas voces aisladas, dicha muerte parece dejar a nuestros contemporáneos sumidos en la más completa de las indiferencias.

Por ello, el primer objetivo que se propone este Manifiesto es el de saber en qué medida tales reflexiones son susceptibles de suscitar un mínimo, mediano o (acaso) amplio eco. A pesar del pesimismo que embarga a este Manifiesto, late en él la descabellada esperanza de pensar que no es posible que sólo algunas voces aisladas se alcen a veces para oponerse al sentir que caracteriza a nuestro tiempo. En la medida en que dicho sentir siga siendo dominante, es evidente que inquietudes como las aquí expresadas sólo podrán plasmarse en un grito, en una denuncia. Esto es obvio. Pero no lo es el que semejante grito no figure siquiera inscrito en aquel talante crítico, impugnador y transgresor, que tanto había caracterizado a la modernidad, al menos durante sus inicios. Como si todo fuera de lo mejor en el mejor de los mundos, casi nada queda de aquella actitud crítica: lo único que hoy mueve a la protesta son las reivindicaciones ecologistas (tan legítimas como encerradas en el más plano de los materialismos), a las que cabría añadir los putrefactos restos de un comunismo igual de materialista y tan trasnochado que ni siquiera parece haber oído hablar de los crímenes que, cometidos bajo su bandera, sólo son equiparables a los realizados por el otro totalitarismo de signo aparentemente opuesto.

Desvanecido el talante inquieto y crítico que honró antaño a la modernidad, entregado nuestro tiempo a las exclusivas manos de los señores de la riqueza y del dinero —de ese dinero cuyo espíritu impregna por igual a sus vasallos—, sólo queda entonces la posibilidad de lanzar un grito, de expresar una angustia. Tal es el propósito del presente Manifiesto, el cual, además de lanzar dicho grito, también pretende posibilitar que se abra un profundo debate. Ni que decir tiene que tanto las cuestiones explícitamente apuntadas aquí, como las muchas otras que éstas implican, no pueden encontrar su cabal expresión en el breve espacio de un Manifiesto. Por ello, ya se verían abundantemente colmados los propósitos de éste, si a raíz de su publicación se abriera un debate en el que participaran cuantos se sintieran concernidos por las inquietudes aquí esbozadas.

Apuntemos tan sólo algunas de las cuestiones en torno a las cuales podría lanzarse tal debate. Si "el tema de nuestro tiempo", por parafrasear a Ortega, no es otro que el constituido por esta profunda paradoja: la necesidad de que se abra un destino para

handiagoa ematen du, galera horrek gure garaikideengan sortzen duen erabateko axolagabetasunak, oso gutxi dira-eta ezer esaten dutenak.

Horrela, bada, manifestu honen lehen helburua zera da: hausnarketa horiek guztiek zelako oihartzuna (txikia, ertaina edo handia) duten ikustea. Manifestu hau ezkor samarra bada ere, badu itxaropen zoro bat: uste dugu ez dela posible gure garaian nagusi den pentsamenduaren aurka ahots bakan batzuk bakarrik altxatzea. Izan ere, pentsamendu horrek dirauen bitartean, argi dago bide bakarra izango dugula halako kezkek adierazteko: txilioa, salaketa. Baina hain argi ez dagoena da halako garrasiak nola galdu duen modernotasunak hasieran zuen ukitu kritikoa, urratzailea. Dagoeneko ez dago kritikotasun-zantzurik; mundurik onenean eta gauzarik onenekin bizi gara, antza. Errebindikazio ekologistak dira protesta egiteko arrazoi bakarrak, eta esan beharra dago, bidezkoak izan arren, materialismorik garbienean oinarrituta daudela. Horiekin batera, aipatzekoak dira komunismoaren hondar ustel batzuk ere; baina haiek bezain materialistak dira eta zaharkituta daude. Gainera, itxuraz ez dituzte euren banderapean egindako krimenak ikusten, nahiz eta beste muturreko totalitarismoak burututakoan antzekoak izan.

Lausotu egin da garai batean modernotasunak zuen jarrera kezkatu eta kritikoa. Gure astia jaun aberats eta dirudunen esku dago, eta diruak guztiei eragiten die berdin. Gauzak horrela, ulu egitea dugu aukera bakarra, gure larritasuna adieraztea. Eta horixe da, hain zuzen ere, manifestu honen helburua. Baina badu beste xede bat ere: eztabaida sakona sortzea. Garbi dago, egon ere, bai hemen zehaztutako gaiak, bai horien ondoriozko beste asko, ezin direla manifestu honen murriztasunean behar bezala argitu. Horregatik, poztuko ginateke hau plazaratzean eztabaida sortuko balitz, bertan azaldutako kezken inguruan.

Bota ditzagun eztabaidagai izan daitezkeen gaietako batzuk, gutxi badira ere. Ortega parafraseatuz, "gure garaiko gaia" paradoxa sakon batean oinarritzen da: paturik ez duen eta horrelaxe

los hombres privados de destino y que han de seguir estándolo; si nuestra cuestión es la exigencia de que se abra un sentido para un mundo que descubre —aunque encubierta, desfiguradamente— todo el sinsentido del mundo; si tal es, en fin, nuestro "tema", la cuestión que entonces se plantea es: ¿mediante qué cauces, a través de qué medios, de qué contenido, de qué símbolos, de qué proyectos... puede llegar a abrirse semejante donación de sentido?

La anterior paradoja —disponer y no disponer de destino; afirmar un sentido establecido sobre el sinsentido mismo del mundo—; todo este arriesgado pero enaltecedor ejercicio de equilibrio sobre el abismo, todo este mantenerse en la movediza "frontera" que media entre la tierra firme y el vacío: ¿no se parece todo ello al abismo, a la paradoja misma del arte: del verdadero arte, del que nada tiene que ver con el entretenimiento que se vende hoy bajo su nombre? "Tenemos el arte para no perecer a causa de la verdad", es decir, de la racionalidad, decía Nietzsche. Quizá sí, quizá sea el arte lo que pudiera sacar al mundo de su abulia y torpor. Para ello, haría falta desde luego que la imaginación artística recobrara nuevo impulso y vigor. Pero ello no bastaría. También haría falta que, dejando de ser tanto un entretenimiento como un mero ornamento estético, el arte recuperara el lugar que le corresponde en el mundo; pasara a ser asumido como la expresión de la verdad que el arte es y que nada tiene que ver con la mera contemplación efectuada por un ocioso espectador.

Ahora bien, ¿es ello posible en este mundo en el que no sólo la banalidad y la mediocridad, sino la fealdad misma (fealdad arquitectónica y decorativa, fealdad vestimentaria y musical...) parece estar convirtiéndose en uno de sus ejes centrales? ¿Es posible esta presencia viva del arte en un mundo dominado por la sensibilidad y el aplauso de las masas? ¿Es posible que el arte se instale en el corazón del mundo sin que reviva —pero ¿cómo?— lo que fue durante siglos la auténtica, la vivísima cultura popular? Dicha cultura ha desaparecido hoy, inmolada en el altar de una igualdad que mide a todos por el mismo rasero, que impone a todos la sumisión a la única cultura —la culta— que nuestra sociedad considera posible y legítima. ¿No es pues la cuestión misma de la igualdad —la de sus condiciones, posibilidades y consecuencias— la que queda de tal modo abierta, la que resulta ineludible plantear?

jarraituko duen gizakiari patua emateko beharra. Munduaren zentzugabekeriak jabetzeko zentzua piztu nahi bada, horixe bada gure "gaia", hona hemen sortzen zaigun galdera: zein bide, bitarteko, eduki, sinbolo, proiektu... erabili behar dira zentzu hori berreskuratzeko?

Aipatu dugun paradoxa –patua izatea, ez izatea, eta munduaren zentzugabekeriaren zentzua izatea–, amildegia gainean orekari eusteko ahalegin arriskutsu bezain txalogarria, lurzorua eta hutsaren artean dagoen "muga" ezegonkorrean irauten beharra, ez al da hori guztia amildegia, artearen paradoxa? Benetako arteaz ari gara, jakina, ez gaur egun bere izenean saltzen zaigun entretenimenduaz. Nietzsche-k esaten zuen artea bitarteko bat zela, egiaren –arrazionaltasunaren– aurrean bizia ez galtzeko bide bat. Agian bai, agian artea izango da mundua gogogabetasunetik eta baldartasunetik salba dezakeena. Horretarako, baina, indarra eta kemena berreskuratu beharko luke irudimen artistikoak, eta hori ere ez litzateke nahikoa izango. Arteak munduan dagokion lekua berreskuratu beharko luke, entretenigarri eta apaingarri estetiko huts izateari utzita. Artea egiaren erakusgarri izan beharko litzateke, halaxe da eta; izan ere, ez du zerikusirik ikusleak aisian egiten dion begiratu soilarekin.

Alabaina, posible al da hori gure mundu honetan? Kontuan hartu behar da hutsalkeria eta kaskarkeria ez ezik, bai arkitekturaren eta dekorazioan, bai jantziaren, bai musikan itsuskeria bera ere ardatz bihurtzen ari dela. Posible al da artea bizirik egotea masen sentikortasuna eta txaloak nagusi diren mundu honetan? Posible al da artea munduaren bihotzean sartzea, eta (ez dakigu nola) mendeetan zehar benetako herri-kultura bizia izan zena berpiztea? Dagoeneko desagertua dugu kultura hori. Guztiak neurri berarekin berdintzen dituen aldarean inmolatuta dago, gure gizarteak bideragarri eta bidezko ikusten duen kultura bakarraren (kultura jantziaren) menpe jarrita. Hortaz, ez al da berdintasun hori bera, eta berdintasun horren baldintzak, aukerak eta ondorioak ezinbestean hausnartu behar direnak?

Esboceemos una última cuestión, quizá la más decisiva. Toda la desespiritualización aquí denunciada está íntimamente relacionada con lo que cabría denominar el desencanto de un mundo que ha realizado el más profundo de los desencantamientos: ha aniquilado a las fuerzas sobrenaturales que, desde el comienzo de los tiempos, regían la vida de los hombres y daban sentido a las cosas. No hace falta insistir en la necesidad de dicho desencantamiento para explicar los fenómenos físicos que conforman el universo. Imprescindibles resultan para ello las armas de una razón cuyas conquistas materiales (tanto teóricas como prácticas) están sobradamente probadas. Ahora bien, ¿no son estas mismas armas y estas mismas conquistas las que lo pervierten todo, cuando, dejando de aplicarse a lo material, intentan dar cuenta de lo espiritual? ¿No es el poder de la razón el que lo reduce todo a un mecánico engranaje de causas y efectos, de funciones y utilidades, cuando pretende encarar la significación del mundo, cuando intenta enfrentarse al sentido de la existencia? El fondo del problema, ¿no estriba en este desmesurado poder que se ha atribuido el hombre al proclamarse no sólo "dueño y señor de la naturaleza", sino también dueño y señor del sentido? Sólo gracias a la presencia del hombre, es cierto, surge, se dispensa esta "cosa", la más portentosa de todas, a la que denominamos sentido. Pero de ello no se deriva en absoluto que el hombre disponga del sentido, sea su dueño y señor, domine y controle un misterio que siempre le trascenderá.

Semejante trascendencia no es en el fondo otra cosa que lo que, durante siglos, se ha visto expresado bajo el nombre de "Dios". Enfocar las cosas desde tal perspectiva, ¿no equivale pues a plantear –pero sobre bases radicalmente nuevas– la cuestión que la modernidad había creído poder obviar para siempre: la cuestión de Dios? Dejemos abierta, al igual que las anteriores, esta última cuestión: la de un insólito dios (quizá conviniera por ello escribir su nombre con minúscula), la cuestión de un dios que, careciendo de realidad propia –no perteneciendo ni al mundo natural ni al sobrenatural–, sería tan dependiente de los hombres y de la imaginación como éstos lo son de él y de ésta. ¿A qué mundo, a qué orden de realidad podría pertenecer semejante dios? No podría desde luego pertenecer a ese orden sobrenatural cuya realidad física hasta ha sido desmentida... por Su Santidad el Papa, quien en julio de 1999 –pero nadie se enteró– afirmaba que "el cielo [...] no es ni una abstracción ni un lugar físico entre las nubes, sino una relación viva y personal con Dios". ¿Dónde puede morar dios, en qué puede consistir la

Baina bada beste kontu bat ere, erabakigarriena agian. Hemen salatzen dugun espiritualtasun-galerak lotura estua du gaur egun munduak bizi duen desengainuarekin: suntsitu egin ditu garaien hasieratik gizakiaren bizitza zuzendu izan duten eta gauzei zentzua eman izan dieten naturaz gaindiko indarrak. Unibertsoa osatzen duten fenomeno fisikoak azaltzeko, lehen ez bezala, arrazoia erabiltzen du, behar hainbat frogatu diren konkista materialak (teorikoak nahiz praktikoak) egin dituen arrazoia. Baina, ez al dira arrazoi hori eta konkista horiek dena galbidera eramaten dutenak, alderdi materialean jardun beharrean, alderdi espiritualaz dihardutenean? Ez ote da arrazoiaren boterea, guztia kausa/efektu eta funtzio/erabilera binomio mekanikoetara murrizten duena, munduaren esangura eta izatearen zentzua argitu nahi dituztenean? Arazoaren benetako oinarria ez ote dago gizakiak "naturaren jaun eta jabe" ez ezik, zentzuaren jaun eta jabe ere izateko bereganatu duen ahalmen neurrigabea? Egia da; gizakiaren existentzian oinarrituta bakarrik hitz egin dezakegu zentzuaz, harrigarrietan harrigarriena den "gauza" horretaz. Baina horrek ez du inondik inora esan nahi, gizakiak zentzua duenik, zentzuaren jaun eta jabe denik eta beti gaindituko duen misterio hori menderatu eta kontrolatzeko gai denik.

Transzendentzia horri, azken finean, "Jaungoikoa" esan izan zaio mendeetan zehar. Horrela, bada, gauzei ikuspegi horretatik begiratzea, ez ote da, bada, modernotasunak betirako baztertuta zuela uste zuen Jaungoikoaren kontua berriro planteatzea (oinarri berri-berrietatik ez bada ere)? Utz dezagun mahai gainean azken gai hau ere, jaungoiko ezohikoarena alegia (horregatik idatzi dugu letra xehez). Jaungoiko honek ez du berezko izaerarik –ez naturaren munduan, ez naturaz gaindikoan–, gizakiaren eta irudimenaren menpe dago, gizakia bera ere jaungoikoaren eta irudimenaren menpe dagoen bezala. Zein mundutan, zein errealitate-ordenatan bizi daiteke halako jaungoikoa? Naturaz gaindiko ordenan ez, behinik behin. Izan ere, Aita Santuak berak, inor ohartu gabe, zera esan zuen: "zerua [...] ez da abstrakzioa, ezta lainoen arteko eremu fisikoa ere; Jaungoikoarekiko harreman bizi eta pertsonala, baizik". Hortaz, non bizi da jaungoikoa, zertan datza jainkotasuna, toki

naturaleza divina, si ningún lugar físico le conviene, si sólo de una "relación" se trata? ¿Dónde puede morar dios, sino en este lugar aún más prodigioso y maravilloso que está constituido por las creaciones de la imaginación?

Plantear la cuestión de dios no es otra cosa, en últimas, que plantear la cuestión de la imaginación, interrogarnos sobre su naturaleza: la de esa fuerza que, a partir de nada, crea signos y significaciones, creencias y pasiones, instituciones y símbolos...; esa fuerza de la que quizá todo dependa y de la que el hombre moderno, como no podía ser menos, también se pretende dueño y señor. Así lo cree este hombre que, mirando con condescendiente sonrisa a los signos y símbolos de ayer o de hoy, exclama burlón: "¡Bah, sólo son imaginaciones!", mentiras, pues.

Nota:

Quienes se sientan afines con las ideas del presente Manifiesto pueden adherirse al mismo mediante correo electrónico: manifiesto@altera.net, fax. 93 451 74 41 o carta a Ediciones Àltera. Comte d'Urgell, 64, 1º-1ª. 08011 Barcelona, o consultarlo en la página web: www.manifiesto.org

fisikorik ez badagokio eta "harreman" hutsa bada? Non bizi daiteke jaungoikoa, irudimenaren sorkuntzek osatzen duten eremu miragarri eta txundigarrian ez bada?

Azken finean, jaungoikoaz mintzatzea, irudimenaz mintzatzea da, gure buruari haren izaeraz eta indarraz galdetzea. Izan ere, indar horrek ikurrak eta esanahiak, sinismenak eta irrikak, erakundeak eta sinboloak sortzen ditu ezerezetik, eta akaso, dena kontrolatzen du. Gizaki modernoak, jakina, indar horren jaun eta jabetzat du bere burua. Halaxe sinesten du, eta atzoko eta gaurko ikur eta sinboloei irribarretsuz begiratuta, zera esaten du isekari: "Ba, irudimen hutsak dira! Gezurrak, beraz".

Oharra:

Manifestu honetako ideiei atxiki nahi izanez gero, posta elektronikoz (manifesto@altera.net), faxez (93 451 74 41) edo Ediciones Altera-ri gutun bat bidaliz (Comte d'Urgell, 64, 1º-1ª. 08011 Barcelona) egin dezakete, eta bestela kontsultatu www.manifesto.org web-orrialdean.

**NOSOTROS SOMOS UNA PARTE DE LA TIERRA
GU LURRARENAK GARA**

**Gran Jefe Seattle
Seattle Buruzagi Handia**

NOSOTROS SOMOS UNA PARTE DE LA TIERRA
Gran Jefe Seattle

El estado de Washington fue la patria de los Duwamish, un pueblo indio que se consideraba una parte de la Naturaleza, la veneraba y vivía con ella en armonía. En el año 1855 el decimocuarto Presidente de los Estados Unidos, el demócrata Franklin Pierce, les propuso que vendiesen sus tierras a los colonos blancos y que se fuesen a una reserva. Este texto es la respuesta del Gran Jefe Seattle, Jefe de los Duwamish.

El gran Jefe de Washington nos envió un mensaje diciendo que deseaba comprar nuestra Tierra.

El Gran Jefe también nos envió palabras de amistad y de buena voluntad. Es una señal amistosa por su parte, pues sabemos que no necesita nuestra amistad.

Pero vamos a considerar su oferta, porque sabemos que si no se la vendemos, quizá el hombre blanco venga con sus armas y se apodere de nuestra Tierra. ¿Quién puede comprar o vender el Cielo o el calor de la Tierra?

No podemos imaginar esto si nosotros no somos dueños del frescor del aire, ni del brillo del agua. ¿Cómo él podría comprárnosla? Trataremos de tomar una decisión.

Según lo que el Gran Jefe Seattle diga, el Gran Jefe en Washington puede dejarlo, del mismo modo que nuestro hermano blanco en el transcurso de las estaciones puede dejarlo.

Mis palabras son como las estrellas, nunca se extinguen. Cada parte de esta tierra es sagrada para mi pueblo, cada brillante aguja de un abeto, cada playa de arena, cada niebla en el oscuro bosque, cada claro del bosque, cada insecto que zumba es sagrado, para el pensar y el sentir de mi pueblo. La savia que sube por los árboles, trae el recuerdo del Piel Roja.

Washingtongo estatua Duwamish-tarren aberria zen. Herri hau Naturarekin bat bizi zen, erabat harmonian, eta ondratu egiten zuten. 1855ean, Estatu Batuetako Lehendakariaren hamalaugarrena, Franklin Pierce demokratik lurak kolono zuriei saltzeko eta erreserba batera joateko proposatu zien Duwamish-tarrei. Testu hau, hortaz, Seattle Buruzagi Handiak, Duwamish-tarren Buruzagiak, eman zion erantzuna da.

Washingtongo Buruzagi Handiak, gure Lurra erosi nahi zuela eta, mezua bidali zigun bere nahiaren berri emateko.

Mezuan adiskidetasun eta gogo oneko hitzak ere igorri zizkigun Buruzagi Handiak. Hori guztia seinale lagunkoia da haren aldetik, jakin badakigulako ez duela inondik ere gure laguntasunik behar.

Hala eta guztiz ere, hark egindako eskaintza kontuan hartu eta aztertu egingo dugu, badakigulako saltzen ez badiogu agian gizon zuria etorri eta, armak eskutan, gure Lurraren jabe egingo dela. Baina, nork eros edo sal lezake Zerua? Eta Lurraren berotasuna?

Gu ez gara airearen freskuraren jabe, eta uraren distiraren jabe ere ez. Ezinezkoa egiten zaigu, beraz, horrelako gauzak imajinatzea. Nola erosi ahal digu Lurra Washingtongo Buruzagi Handiak? Egindako proposamena aztertu eta erabaki bat hartzeko ahalegina egingo dugu.

Seattle Buruzagi Handiak erabakitzen duenaren arabera, utzi egin dezake Washingtongo Buruzagi Handiak, gure anaia zuriak ere utz dezakeen bezala urtaroen joanean.

Nire hitzek izarren antza dute, ez baitira iraungitzen. Lurralde honetako txoko guzti-guztiak sakratuak dira nire herriarentzat: izei bakoitzaren orratz distiratsu bakoitza, hareazko hondartza bakoitza, baso iluneko behe-laino bakoitza, oihaneko argi-izpi bakoitza, burrunba egiten duen intsektu bakoitza. Denak dira sakratuak nire herriaren pentsamolde eta sentipenen arabera. Zuhaitzean gora igotzen den izerdiak ere Azal Gorriaren oroimena dakar gogora.

Los muertos de los blancos olvidan la Tierra en que nacieron, cuando desaparecen para vagar por las estrellas. Nuestros muertos nunca olvidan esta maravillosa Tierra, pues es la madre del Piel Roja.

Nosotros somos una parte de la Tierra, y ella es una parte de nosotros. Las olorosas flores son nuestras hermanas, el ciervo, el caballo, la gran águila, son nuestros hermanos. Las rocosas alturas, las suaves praderas, el cuerpo ardoroso del potro y del hombre, todos pertenecen a la misma familia.

Por eso cuando el Gran Jefe de Washington, nos envió el recado de que quería comprar nuestra Tierra, exigía demasiado de nosotros.

El Gran Jefe nos comunicaba que quería darnos un lugar, donde pudiéramos vivir cómodamente. Él sería nuestro padre, y nosotros seríamos sus hijos. ¿Pero, será posible esto alguna vez? Dios ama a vuestro pueblo y ha abandonado a sus hijos rojos.

Él ha enviado máquinas para ayudar al hombre blanco en su trabajo, y construye para él grandes pueblos. Él hace que vuestra gente cada vez sea más poderosa, día tras día. Pronto invadiréis la Tierra, como ríos que se desbordan desde las gargantas montañosas, por una inesperada lluvia.

Mi pueblo es como una corriente desbordada, pero sin retorno. No, nosotros somos de razas diferentes. Nuestros hijos no juegan juntos, y nuestros ancianos no cuentan las mismas historias. Dios os es favorable, y nosotros estamos como huérfanos.

Meditaremos sobre vuestra oferta de comprarnos la Tierra. No será fácil, porque esta Tierra es sagrada para nosotros.

Nos sentimos alegres en este bosque. No sé por qué, pero nuestra forma de vivir es diferente de la vuestra.

El agua cristalina, que brilla en arroyos y ríos, no es sólo agua, sino la sangre de nuestros antepasados. Si os vendemos nuestra Tierra, habéis de saber que es sagrada, y que vuestros hijos aprendan que es

Gizon zuriak, hil eta izarren artean noraezean ibiltzeko desagertzen denean, ahantzi egiten du sorterrria, jaio zen Lurra. Gure hildakoek, aldiz, ez dute Lurralde zoragarri hau inoiz ahazten, Lurralde hau baita Azal Gorrien ama.

Gu Lurrarenak gara eta Lurra gurea dugu. Lore usaintsuak gure ahizpak dira eta oreina, zaldia eta arrano handia gure anaiak. Leku malkartsuak eta garaiak, belardi lauak, zaldikoaren eta gizakiaren gorputz sutsua... familia berekoak dira guztiak.

Horregatik guztiagatik, Washingtongo Buruzagi Handiak gure Lurra erosteko nahiaren berri eman zigunean eskaerari gehiegikeria iritzi genion.

Igorritako mezuan, eroso bizitzeko leku bat eman nahi zigula zioen Buruzagi Handiak. Horrela, hura gure aita izango zen eta gu, berriz, haren seme-alabak. Baina, izan liteke hori inoiz? Jainkoak seme-alaba gorriak abandonatu egin ditu eta zuen herrialdea du maite.

Makinak bidali ditu gizon zuriari laguntzeko, eta herrialde handiak eraiki ditu harentzat. Jainkoari esker, egunetik egunera boteretsuagoa da zuen jendea. Laster inbadituko duzue Lurra, ustekabeko euri jasa baten ondorioz haitzarte malkartsuetatik gainezka egiten duten erreken antzera.

Nire herria gainezka egin duen korronea bezalakoa da, baina itzulerarik ez duena. Ez, gu eta zuek ez gara arraza berekoak. Gure umek ez dute elkarrekin jolasten eta gure zaharrek ere ez dituzte istorio berdinak kontatzen. Jainkoa alde duzue; gu, ostera, umezurtz gaude.

Gogoeta egin eta Lurra zuei saltzeko proposamena aztertuko dugu. Ez da erraza izango, Lurralde hau sakratua baita guretzat.

Pozik gaude baso honetan. Ez dakit zergatik, baina gure bizimodua eta zuena oso desberdinak dira.

Ibai eta erreketan distira egiten duen ur gardena, ur hutsa baino gehiago da guretzat. Ur hori gure arbasoen odola da. Lurra salduko bagenizue, gogoan izan beharko zenukete sakratua dela, eta zuen seme-alabek ere sakratua dela

sagrada, y que todos los pasajeros reflejos en las claras aguas son los acontecimientos y tradiciones que refiere mi pueblo.

El murmullo del agua es la voz de mis antepasados. Los ríos son nuestros hermanos, ellos apagan nuestra sed. Los ríos llevan nuestras canoas y alimentan a nuestros hijos.

Si vendiésemos nuestra tierra tenéis que acordaros, y enseñar a vuestros hijos que los ríos son nuestros hermanos –y los vuestros–, y que tendréis desde ahora que dar vuestros bienes a los ríos, así como a otros de vuestros hermanos.

El Piel Roja siempre se ha apartado del exigente hombre blanco, igual que la niebla matinal en los montes cede ante el sol naciente. Pero las cenizas de nuestros antepasados, sus tumbas, son tierra santa, y por eso estas colinas, estos árboles, esta parte de la Tierra, nos es sagrada.

Sabemos que el hombre blanco no comprende nuestra manera de pensar.

Para él una parte de la Tierra es igual a otra, pues él es un extraño que llega de noche y se apodera en la Tierra de lo que necesita.

La Tierra no es su hermana, sino su enemiga, y cuando la ha conquistado, cabalga de nuevo.

Abandona la tumba de sus antepasados y no le importa. Él roba la Tierra de sus hijos, y no le importa nada. Él olvida las tumbas de sus padres, y los derechos de nacimiento de sus hijos. Trata a su madre, la Tierra, y a su hermano, el Cielo, como cosas que se pueden comprar y arrebatar, y que se pueden vender, como ovejas o perlas brillantes.

Hambriento, se tragará la tierra, y no dejará nada, sólo un desierto.

No sé, pero nuestra forma de ser, es diferente de la vuestra.

ikasi beharko lukete, eta erreka hauetako ur gardenotan islatzen diren erreflexu iragankorrek ere nire herriaren gertakariak eta tradizioak direla.

Uraren zurrumurrua nire arbasoen ahotsa da. Errekak gure anaiak dira, egarria asetzen digute, gure kanoak garraiatzen dituzte eta gure seme-alabei jaten ematen diete.

Lurra salduko bagenu, gogoan izan beharko zenukete eta zuen seme-alabei irakatsi errekak gure anaiak direla, bai eta zeuen anaiak ere. Ez ahaztu errekei eman beharko dizkiezuela zuen ondasunak gaurtik aurrera, beste anai-arrebei ere eman beharko dizkiezuen bezala.

Azal Gorria beti aldendu izan da gizon zuri zorrotzarengandik, goizeko behe-lainoak jaio berri den eguzkiaren aurrean etsi ohi duen moduan. Baina gure arbasoen errauntsak, haien hilobiak, guztiak dira lur santuak. Horregatik muino hauek, zuhaitz hauek eta, oro har, Lurraren alderdi hau sakratuak dira guretzat.

Horren guztiaren aurrean, ordea, badakigu gizon zuriak ez duela gure mundua ikusteko era ulertzen.

Gizon zuriarentzat Lurraren eremu guztiak dira berdinak, gauetz ailegatu eta denen jabe egin ohi den arrotza da eta.

Lurra ez da haren ahizpa, haren etsaia baizik, eta konkistatzen duenean berriro ere bideari ekiten dio, lur berrien bila.

Arbasoen hilobia utzi egiten du, eta ez zaio ardura. Zuriak seme-alaben Lurra lapurtzen du eta ez zaio ezertxo ere axola. Gurasoen hilobiak ere ahaztu egiten ditu, bai eta seme-alaben jaiotza-eskubideak ere. Haren ama eta haren anaia, hots, Lurra eta Zerua, eros eta lapur daitezkeen gauzak bailiran tratatzen ditu, ardi edo perla distiratsuen antzera sal daitezkeen gauzak bailiran.

Lurra irentsiko du gosearen gosez, eta ez du ezer ere utziko, desertu itzela bakarrik.

Ez dakit zergatik, baina gure izaera eta zuena oso bestelakoak dira.

La vista de vuestras ciudades hace daño a los ojos del Piel Roja. Quizá porque el Piel Roja es un salvaje y no lo comprende.

No hay silencio alguno en las ciudades de los blancos, no hay ningún lugar donde se pueda oír crecer las hojas en primavera y el zumbido de los insectos.

Pero quizá es porque yo sólo soy un salvaje, y no entiendo nada.

La charlatanería sólo daña a nuestros oídos. ¿Qué es la vida si no se puede oír el grito solitario del pájaro chotacabras, o el croar de las ranas en el lago al anochecer?

Yo soy un Piel Roja y no entiendo esto.

El indio puede sentir el suave susurro del viento, que sopla sobre la superficie del lago, y el soplo del viento limpio por la lluvia matinal, o cargado de la fragancia de los pinos.

El aire es de gran valor para el Piel Roja, pues todas las cosas participan del mismo aliento: el animal, el árbol, el hombre, todos participan del mismo aliento.

El hombre blanco parece no considerar el aire que respira; a semejanza de un hombre que está muerto desde hace varios días y está embotado contra el hedor.

Pero si os vendemos nuestra Tierra no olvidéis que tenemos el aire en gran valor; que el aire comparte su espíritu con la vida entera. El viento dio a nuestros padres el primer aliento, y recibe el último hálito. Y el viento también insuflará a nuestros hijos la vida. Y si os vendiéramos nuestra Tierra, tendríais que cuidarla como un tesoro, como un lugar donde también el hombre blanco sepa que el viento sopla suavemente sobre las flores de la pradera.

Yo soy un salvaje, y es así como entiendo las cosas. He visto mil bisontes putrefactos, abandonados por el hombre blanco. Los mataron desde un convoy que pasaba.

Zuen hirien ikuspegiak min ematen dio begietan Azal Gorriari. Apika, basatia izaki, Azal Gorriak ezin duelako zuen mundua ulertu.

Gizon zuriaren hirietan ez dago isiltasunik, ez hostoek udaberrian hazten direnean egiten duten hotsik, ez intsektuen burrunba entzuteko aukera eskaintzen duen lekurik.

Baina, beharbada, basati hutsa izanik, ezer ulertzen ez dudalako da hori.

Berritsukeriak gure belarriak mindu baizik ez du egiten. Zer da, bada, bizitza zeta txoriaren oihu bakartia edo lakuko igelen kroka entzun ezin bada?

Ni Azal Gorria naiz eta ez dut ulertzen.

Indioak lakuaren gainetik igarotzean txistu egiten duen haizearen marmar leuna senti dezake, bai eta haizearen murmurioa ere, goizeko euritan garbitua, edota pinuen usainaz blai dagoena.

Azal Gorriarentzat balio handikoa da airea, gauza guztiak hats beretik hartzen baitute arnasa; animaliak, zuhaitzak, gizakiak, guztiak hartzen dute arnasa hats beretik.

Gizon zuriak ez dirudi arnasten duen airea kontuan hartzen duenik, hainbat egun hilda daramatzen gizakia balitz bezala, kiratsean hondoratua balego legez.

Baina gure Lurra saltzen badizuegu ez ahaztu aireak garrantzia handia duela guretzat, ez ahaztu bizitza osoarekin konpartitzen duela aireak bere espiritua. Haizeak eman zien gure gurasoei lehen hatsa, eta era berean, azken arnasa ere hark jasotzen du. Haizea da, halaber, gure seme-alabei bizia emango diena. Gure Lurra salduko bagenizue, altxorra bailitzan zaindu beharko zenukete. Gizon zuriak Lurra zelaiko loreen gainean haizeak txistu egiten duen lekua dela jakin beharko du, eta horrela zaindu.

Ni basatia naiz, eta horrela ulertzen ditut gauzak. Inoiz ikusi izan ditut gizon zuriak abandonatutako mila bisonte ustelduta. Zeuden lekutik igarotako konboi batek hil zituen.

Yo soy un salvaje y no puedo comprender cómo el caballo de hierro que echa humo, es más poderoso que el búfalo, al que sólo matamos para conservar la vida.

¿Qué es el hombre sin animales? Si todos los animales desapareciesen el hombre también moriría, por la gran soledad de su espíritu.

Lo que les suceda a los animales, luego, también les sucede a los hombres. Todas las cosas están estrechamente unidas.

Lo que le acaece a la Tierra también les acaece a los hijos de la Tierra.

Tenéis que enseñar a vuestros hijos que el suelo que está bajo sus pies tiene las cenizas de nuestros antepasados.

Para que respeten la Tierra, contadles que la Tierra contiene las almas de nuestros antepasados. Enseñad a vuestros hijos lo que nosotros enseñamos a los nuestros: que la Tierra es nuestra madre.

Lo que le acaece a la Tierra, les acaece también a los hijos de la Tierra. Cuando los hombres escupen a la Tierra, se están escupiendo a sí mismos. Pues nosotros sabemos que la Tierra no pertenece a los hombres, que el hombre pertenece a la Tierra. Eso lo sabemos muy bien. Todo está unido entre sí, como la sangre que une a una misma familia. Todo está unido.

Lo que le acaece a la Tierra les acaece, también, a los hijos de la Tierra.

El hombre no creó el tejido de la vida, sólo es una hilacha. Lo que hagáis a este tejido, os lo hacéis a vosotros mismos. No, el día y la noche no pueden vivir juntos.

Nuestros muertos siguen viviendo en los dulces ríos de la Tierra, y regresan de nuevo con el suave paso de la Primavera, y su alma va con el viento, que sopla rizando la superficie del lago.

Consideraremos la posibilidad de que el hombre blanco nos compre nuestra Tierra.

Ni basatia naiz, eta ez dut ulertzen kea jaurtitzen duen burdin zaldia nolatan den bufaloa baino boteretsuagoa. Guk, indiook, bizirik irauteko baino ez dugu hiltzen bufaloa.

Zer da, bada, gizakia animaliarik gabe? Animalia guztiak desagertuko balira, gizakia bera ere hil egingo litzateke bere espirituak sentituko lukeen bakardade handiarengatik.

Animaliei zer gertatzen zaien, horixe bera gertatuko zaie gizakiei ere. Gauza guztiak daude elkarri estuki lotuta.

Lurrari gertatzen zaion oro Lurraren seme-alabei ere gertatzen zaie.

Zuen seme-alabei oin azpian duten lurrak gure arbasoen errautsak gordetzen dituela erakutsi behar diezue.

Lurra errespetatu dezaten, kontatu iezaiezue gure arbasoen arimak gordetzen dituela. Guk geure seme-alabei erakusten dieguna erakutsi behar diezue, alegia, Lurra gure ama dela.

Lurrari gertatzen zaion oro Lurraren seme-alabei ere gertatzen zaie. Gizakiek Lurrari tu egiten diotenean, euren buruari egin diote tu, gizakia ez baita Lurraren jabe, alderantziz baizik, Lurra bera da gizakiaren jabea. Hori guztia oso ondo dakigu guk. Guztia dago elkarri lotuta, estuki gainera, odolak lotzen dituen familia bereko kideak legez. Guztia dago elkarri lotuta.

Lurrari gertatzen zaion oro Lurraren seme-alabei ere gertatzen zaie.

Gizakiak ez zuen bizitzaren ehuna sortu, gizakia haritxo mehea baino ez baita. Bada ehunari egindako kaltea zeuon buruari ere egiten diozue. Ez, egunak eta gauak ezin dute elkarrekin bizi.

Gure hildakoek bizirik diraute Lurraren erreka gozoetan, eta udaberriaren joan leunarekin itzuli egiten dira berriro. Putz eginez lakuaren gainazala kiribildu eta urruntzen den haizearekin joaten dira hildakoen arimak.

Kontuan hartu dugu gizon zuriak gure Lurra erosi ahal duela.

Pero mi pueblo pregunta: ¿qué es lo que quiere el hombre blanco? ¿Cómo se puede comprar el Cielo, o el calor de la Tierra, o la velocidad del antílope? ¿Cómo vamos a venderos esas cosas y cómo vais a poder comprarlas? ¿Es que, acaso, podréis hacer con la Tierra lo que queráis, sólo porque un Piel Roja firme un pedazo de papel y se lo dé al hombre blanco?

Si nosotros no poseemos el frescor del aire, ni el brillo del agua, ¿cómo vais a poder comprárnoslo?

Es que, acaso, podéis comprar los búfalos cuando ya habéis matado al último?

Consideraremos vuestra oferta. Sabemos que si no os la vendemos vendrá el hombre blanco y se apoderará de nuestra Tierra. Pero nosotros somos unos salvajes.

El hombre blanco que va en pos de la posesión del poder, ya se cree que es Dios, al que le pertenece la Tierra. ¿Cómo puede un hombre apoderarse de su madre?

Consideraremos vuestra oferta de comprar nuestra Tierra. El día y la noche no pueden vivir juntos.

Consideraremos vuestra oferta de que vayamos a una reserva. Queremos vivir aparte y en paz. No importa dónde pasemos el resto de nuestro días.

Nuestros hijos verán a sus padres sumisos y vencidos. Nuestros guerreros estarán avergonzados.

Después de la derrota pasarán sus días en la holganza, y envenenarán sus cuerpos con dulce comidas y dulce bebidas.

No importa dónde pasemos el resto de nuestros días.

No quedan ya muchos. Sólo algunas horas, un par de inviernos, y no quedará ningún hijo de la gran estirpe que en otros tiempos vivió en

Baina nire herriak gizon zuriak zer nahi ote duen galdetzen du. Nola eros daiteke Zerua? Eta Lurraren berotasuna? Eta antilopearen abiadura? Nola salduko dizkizuegu horrelako gauzak? Eta zuek ere nola erosiko dizkizue? Benetan uste al duzue Azal Gorriak paper zati bat sinatu eta gizon zuriari emanda Lurrarekin nahi duzuen ahal izango duzuela?

Gu ez gara aireak duen freskuraren jabe, ez eta urak berez duen distiraren jabe ere. Hori horrela izanik, nola erosiko dizkizue, bada?

Ba al duzue bufalorik erosteko aukerarik dagoeneko azkena hil baduzue?

Kontuan daukagu zuen eskaintza. Jakin badakigu Lurra saltzen ez badizuegu gizon zuria etorri eta gure Lurraz jabetuko dela. Baina gu basatiak gara.

Zuriak boterea du helburu, haren peskizan bizi da. Jainkotzat du bere burua, eta lurraren beraren jabe dela ere uste du. Nola daiteke, ordea, gizakia bere amaren jabe egitea?

Lurra erosteko egin diguzuen eskaintza aztertuko dugu. Baina eguna eta gaua ezin dira elkarrekin bizi.

Kontuan izango dugu natur erreserba batera joateko egin diguzuen proposamena. Guk geure kasa eta bakean nahi dugu bizi. Ez zaigu axola, ordea, bizitzeko gelditzen zaizkigun azken egunak non igaroko ditugun.

Gure seme-alabek men eginda eta garaituta ikusiko dituzte gurasoak, eta gure gerlariak ere lotsatuta egongo dira.

Porrotaren ondoren, atsedenean igaroko dituzte egunak, eta euren gorputzak jaki eta edari gozoz pozoituko dituzte.

Ez zaigu axola bizitzeko geratzen zaizkigun azken egunak non igaroko ditugun, ez zaizkigu eta asko geratzen jada.

Ordu gutxiren buruan, bi urte inguru igarotakoan, ez da antzinako garaietan Lurrotan bizi izan zen leinurik handiaren seme-alabarik

esta Tierra, y que ahora en pequeños grupos viven dispersos por el bosque, para gemir sobre las tumbas de su pueblo, que en otros tiempo fue tan poderoso y lleno de esperanza como el vuestro.

¿Pero, por qué consternarse por la desaparición de un pueblo? Los pueblos están constituidos por hombres. Es así.

Los hombres aparecen y desaparecen como las olas del mar. Ni siquiera el hombre blanco, cuyo Dios camina a su lado, y habla con él, como el amigo con el amigo, puede librarse del común destino. Quizá seamos hermanos. Esperamos verlo.

Sólo sabemos una cosa –que quizá un día el hombre blanco también descubra–, y es que nuestro Dios, es el mismo Dios suyo. Vosotros, quizá, penséis que le poseéis –igual que tratáis de poseer nuestra Tierra–, pero no podéis. Es el Dios de todos los hombres, lo mismo de los Pieles Rojas que de los blancos. Aprecia mucho esta Tierra y el que atente contra ella significa que desprecia a su Creador.

También los blancos desaparecerán, y quizá antes que otras estirpes.

Continuad contaminando vuestro lecho y una noche moriréis en vuestra propia caída. Pero al desaparecer brillaréis por el fuego del poderoso Dios, que os trajo a esta Tierra, y que os destinó a dominar al Piel Roja en esta Tierra.

Este destino es para nosotros un enigma. Cuando todos los búfalos hayan muerto, los caballos salvajes hayan sido domados, y el rincón más secreto del bosque haya sido invadido por el ruido de muchos hombres, y la visión de las colinas esté manchada por los alambres parlantes, cuando desaparezca la espesura, y el águila se haya ido, esto significará decir adiós al veloz potro y a la caza. El final de la vida y el comienzo de la otra vida. Dios os concedió el dominio sobre estos animales, los bosques y los Pieles Rojas por un determinado motivo. Y ese motivo es un enigma para nosotros.

geratuko. Leinu hori basoan bizi da egun, talde txikitan barreiaturik. Desagertutakoan, leinu horretako seme-alabek ez dute jada negarrik egingo euren herriko hilobietan. Garai batean, boteretsuak eta itxaropenez beteak izan ziren herriok, gaur egun zuen herria boteretsu eta itxaropentsua den bezala.

Baina atsekabetu egin behar al dugu herri bat desagertu delako? Egia da, bai, herriak gizakiz daudela osatuta, eta gizakiak,

itsasoko olatuen antzera, agertu eta desagertu egiten direla. Jainkoa bidelagun duela ibili ohi den gizon zuria bera ere, Jainkoarekin lagunarekin bezala mintzatu ohi dena, ezin da guztiok dugun patuaz libratu. Anai-arrebak omen gara. Egia izango ahal da.

Gauza bakarra baino ez dakigu, eta litekeena da gizon zuria bera ere egunen batean horretaz jabetzea: gure Jainkoa eta zuena bat bera direla, berbera, alegia. Haren jabe zaretela pentsatuko duzue agian, gure lurraz jabetu nahi duzuen moduan. Ezin duzue, ordea. Jainko hori gizaki guztion Jainkoa da, nola Azal Gorriena, hala gizon zuriarena. Biziki estimatzen du Lur hau, eta lur honen aurka egiten duenak Sortzaileari ere egiten dio aurka.

Zuriak ere desagertuko dira, agian beste leinu batzuk baino lehenago, gainera.

Habia kutsatzen jarrai dezakezue, baina zeuek egindako zulora eroriko zarete gauren batean. Desagertuta ere distira egingo zenukete, ordea, Jainko guztiz ahaltsuaren suaren ondoan. Hark ekarri zintuzten lur honetara, eta hark erabaki zuen zeuon patua: Lur honetan Azal Zuriak Azal Gorria menperatu behar duela.

Patu hori igarkizun hutsa da guretzat. Bufalo guztiak hildakoan, zaldi basatiak hezitakoan, oihanetako bazterrik ezkutuenak ere gizaki ugariren zaratek harrapatutakoan, muinoen ikusmira alambre hitzunez zikindutakoan, oihanartea eta arranoa desagertutakoan, orduan, agur esan beharko diegu zaldiko azkarrari eta ehizari. Hori izango da gure biziaren amaiera, bai eta beste biziaren hasiera ere. Jainkoak, arrazoiak arrazoi, animalia, baso eta Azal Gorriaren gaineko nagusitasuna eman zizuen. Arrazoi hori enigma da guretzat.

Quizá podríamos comprenderlo si supiésemos qué es lo que sueña el hombre blanco, qué ideales ofrece a los hijos en las largas noches invernales, y qué visiones arden en su imaginación, hacia las que tienden el día de mañana.

Pero nosotros somos salvajes, los sueños del hombre blanco nos están ocultos, y porque nos están ocultos nosotros vamos a seguir nuestro propio camino.

Pues, ante todo, nosotros estimamos el derecho que tiene cada ser humano a vivir tal como desea, aunque sea de modo muy diverso al de sus hermanos. No es mucho lo que nos une.

Consideraremos vuestra oferta. Si aceptamos es sólo por asegurarnos la reserva que habéis prometido. Quizá allí podamos acabar los pocos días que nos quedan viviendo a vuestra manera.

Cuando el último Piel Roja de esta Tierra desaparezca y su recuerdo sea solamente la sombra de una nube sobre la pradera, todavía estará vivo el espíritu de mis antepasados en estas orillas y estos bosques.

Pues ellos amaban esta Tierra, como ama el recién nacido el latido del corazón de su madre.

Si os llegáramos a vender nuestra Tierra, amadla, como nosotros la hemos amado.

Cuidad de ella, como nosotros la cuidamos, y conservad el recuerdo de esta Tierra tal como os la entregamos.

Y con todas vuestras fuerzas, vuestro espíritu y vuestro corazón, conservadla para vuestros hijos, y amadla, tal como Dios nos ama a todos. Pues hay algo que sabemos, que Dios es el mismo Dios. Esta Tierra es sagrada para Él. Ni siquiera el hombre blanco se puede librar del destino común.

Quizá somos hermanos. Esperamos verlo.

Gizon zuriak zer amesten duen jakingo bagenu, ulertuko genuke agian. Neguko gau hotz eta luzeetan seme-alabei erakusten dienaren berri jakingo bagenu, edo biharko egunerako irudimenean dituen ametsak ezagutuko bagenu.

Baina gu basatiak gara, eta gizon zuriaren ametsak ilunak dira guretzat, ezkutuan daude, eta horregatik jarraitu behar diogu geure bideari.

Izan ere, guztiaren gainetik, gizaki orok nahi duen eran bizitzeko daukan eskubidea erabat estimatzen dugu, anai-arrebek duten bizimoduaren bestelakoa bada ere. Ez gaitu ezer askok elkartzen.

Aintzat hartuko dugu zuen eskaintza. Proposamena onartzen badugu, eskaini diguzuen erreserba ziurtatzeko baino ez da izango. Agian, han igaro ahal izango ditugu eta, zeuen erara, bizitzeko gelditzen zaizkigun egunak.

Lurralde honetako azken Azal Gorria desagertu eta haren oroitzapena belardiaren gaineko lainoaren itzal bilakatzen denean, oraindik ere bizirik iraungo du itsasertz eta basootan nire arbasoen espirituak.

Lurralde hau maite baitzuten haiek, jaioberriak amaren bihotz-taupadak maite dituen legez.

Egunen batean gure Lurra salduko bagenu, maita ezazue guk maite izan dugun moduan.

Zaindu ezazue guk zaindu dugun bezala, eta gorde ezazue Lur honen oroitzapena guk zuei utzi dizuegun bezala.

Eta zuen indar, espiritu eta bihotzaz, gorde ezazue seme-alabentzat, eta maita ezazue, Jainkoak guztiok maite gaituen moduan. Zerbait badakigu, hots, Jainkoa Jainko bera dela guztiontzat. Lur hau sakratua da harentzat. Gizon zuria bera ere ezin da guztion patuaz libratu.

Anai-arrebak omen gara. Egia izango ahal da.



FUNDACION
ESTEYCO

Menéndez Pidal, 17. 28036 Madrid
fundacion@esteyco.es · www.esteyco.es



FUNDACION
ESTEYCO